

**B I D E B I E T A**

Bidebietako aurrekontuak, asmatutako errealitatea

Hurrengo lau urteetarako Donostiako Gobernuaren (pp-psoe) egitasmoa, zehazkabetasun eta hutsunez beteta dago, nahiz eta Alkatetzak datozen urteak Bidebietarron urteak izango direla, esan.

Udaletxeak, Bidebieta-
rekiko Aurrekontuetarako iza-
rra izango den, aparkaleku eta
honen gaineko parkea, publizi-
tate osoz nabarmenduko du.
Baina publizitate horrek gai
honen mamia izkutatzen du,
eta zertan datza gakoa?

200 miloi inguru kostatuko
duen proiektu hau, aparkaleku-
marra erosten dutenek
ordainduko dute. Beraz, gai
honen kudeaketa publikoa izan
arren, Bidebietarako ez da
inbertsio publikorik izango.

Zehazkabetasunen artean,
Gomistegiren eraberritze-
plana zehaztu gabe dago eta
asmo adierazpen batean baino
ez da gelditzen. Salvador
Allende parkearen 2. Fasea
sasitza-mozketan bilkatuko da
eta ez dakigu Udaltzaingoaren
ikuskariordezaren kokapen
berria, honen zerbitzua area-
gotzeko balioko duen ala
ez. Bitartean, auzoan ez dago
kulturetxerik, ez Gizarte
Zerbitzu Unitaterik eta haurt-
zaindegia desagertzeko arris-
kuan dago.

